

FRANTSES ESTATUA

Plazetan zein agintarien jauregietan «ez gara gehiago isilduko» diote emakumeek

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Emakumezkoa izanez gero, agintearen jauregietako korridoreak kale ilunak bezain arriskutsuak direla jakinarazi digute agintari izatera iritsitako zenbait emakumek. Arazoak ez du zerikusirik joera politikoarekin, azken asteotan agerian geratu denez kolore guztietakoak baitira, aukera izanez gero, emakumeak iraintzen ibiltzen direnak.

Benetako demokraziaren aldeko mugimenduaren loraldia martxoaren bukaeran hasi zen frantses Estatuko hainbat plazatan, eta azkenean agintearen jauregietara ere ailegatu dela pentsa daiteke, ministro kargura iritsitako hamazazpi emakumek frantses politikarien aldetik jasandako jazarpen sexuala salatu baitute: urte askotako isiltasuna eta etsipena alde batera utzi eta jasan behar izan duten egoera salatzea ausartu dira, agian plazetan ikusten zutena ikusi ondoren.

Nuit Debout izeneko mugimendua martxoaren 31n abiatu zen, Hollanderen Gobernuaren lan erreformaren kontrako manifestazio baten ondoren parte hartzaileak Errepublikaren Plazan bildu zirenean. Eta gizarteko

gainerako lekuetan gertatzen den moduan, bertan esku hartzen ari diren emakume batzuek Feminismoen Batzordea osatzea erabaki zuten, gizonak nagusi diren esparruan bestela bigarren mailako herritar moduan geratzeko arriskua ikusten zutelako. Orain bost urte Madril-en sortu zen 15M (maiatzaren 15a) mugimenduak zabaldutako bidetik ari dira aurrera egiten frantses Estatuko makina bat plazatan elkartutako herritarrak ere. Espainolek bezala, oso hase-re egoteko arrazoi ugari dituzte frantsesek ere.

Lucia Muñozek Nuit Debout mugimenduan esku hartzen ari diren emakume batzuen hausnarketak jaso ditu Pikaramagazine.com webgunean argitara emandako testu baikor batean. «Plazako giro erreibindikatzailerak eragin du emakumeek bat

egin dezaten, bost puntu garrrantzitsu defenditzeko. Lehen helburua da hitz eta jarduera sexistak saihestea», esplikatu du egileak.

Mathylde izeneko emakumeak Feminismoen Batzordean esku hartzen du. Honela jaso ditu bere hitzak Muñozek: «Batzarren momentu batzuetan neska asko irainduta sentitzen gara, bigarren planoan baikaude. Aurrera beraiek dira, gizonak, eta gero gure gaiak. Feminismoa garrantzitsua da gizartea hezteko, azkenean genero berdintasuna lortu ahal izateko. Hori da feminista izatea». Batzordeak egin dituen kalkuluen arabera, batzarretan esku hartzen dutenen %70etik gora gizonak dira.

Errepublikaren Plazan elkartutako feministek behar-beharrezkotzat jo dute gizonik gabeko batzarrak egitea, emakume


guztiek askatasun osoz hitz egiteko aukera izan dezaten. Hori bai, bilera mistoak ere antolatzen dituzte. Eta hitz edo jardueraren sexistaren bat ikusiz gero, bi eskuak jasotzen dituzte bagina ordezkatzuz, plazan daudenak kontura daitezen salatzeke moduko zerbait gertatu dela.

ERREFORMA ETA EMAKUMEA

Jakina, lan erreforma ere aztertu dute. Garbi daukate erreforma horrek desberdintasunak areagotzea besterik ez duela eragingo, eta emakume asko etxean geratzera beharko dituela.

Agintarien artean bizi diren emakumeen egoera hobea dela pentsa daiteke, baina Denis Baupin diputatu ekologistak Frantziako Nazio Biltzarreko presidente kargua utzi behar izan duenetik, jauregietan ere emakumea bigarren mailako herri-

tartzat hartzen duten gizonezko asko daudela konturatu gara. Bortxaketa ahaleginak, indarkeria matxista, jazarpen sexuala eta bazterketa lan munduan. Hauteskundeetan aukeratu dituzten emakumeek ere eraso horiek egunero jasaten dituzte-





Goiko irudian,
Frantziako Nazio
Biltzarren egoitzaren
aurrian orain aste
batzuk egindako
protestaldi feminista.
Dominique FAGET | AFP

Behoko irudietan,
ezkerretik hasita, Denis
Baupin diputatua
Parlamentuan;
Martxoaren 8aren
karietara ezpainak
margotuta gizonetako
zortzi diputatuk egin
zuten argazkia (Baupin
bigarrena da, ezkerretik
hasita); Aurore Berge eta,
azkenik, Roselyne
Bachelot.
AFP

la jakin dugu, eta orain arte isil-
tasuna nagusitu izan dela beti.
Baina beldurra barrikadaren
beste aldera pasatzen hasia dela
diote feministek, eta horri esker
ministro kargura ailegatutako
hamazazpi emakumek –joera
politiko ezberdinetakoak– era-

baki dute ez direla gehiago isil-
duko. Elen Debost Manseko
Udaleko alkateordea da horieta-
ko bat. Sarean esplikatu du Bau-
pinen alderdian duen posizioari
esker kalte handia egiteko gaita-
suna duela. Debosti orain ia
bost urte deitu zion ustezko

ekologistak, alderdi barruko
bozketa batean babesa emateko
eskatzeko. Horrela egin zuen
emakumeak, hortik aurrera SMS
bidezko jazarpen sexualaren
biktima izango zela imajinatu
ere egin gabe. Ez zuen orduan
ezer salatu. Baina aurtengo mar-

txoaren 11n barruak erabat mu-
gituko zizkion irudia ikusi zuen
alkateordeak: Baupin bera eta
beste zazpi diputatu, gizonak
guztiak, ezpainak margotuta
ageri ziren, emakumeen eskubi-
deekin bat egiteko: «Gizon ho-
rien artean Denis Baupin ikusi
nuenean, botaka egin nuen». Ez
da harritzekoa: bera sufriaraz-
ten zuen gizona, kanpaina ofi-
zial batean eredu bihurtuta.

Roselyne Bachelot eskuineko
zenbait gobernutako ministro
izan zen Chiracen garaian. Argi-
taratu berri den elkarrizketa ba-
tean argi esan du: «sexismoa da
alderdi politikoei gehien parte-
katzen duten gauza».

ISILTASUNAREN LEGEA

Aurore Berge Les Republicains
eskuineko alderdiko diputatuak
sare sozial batean esplikatu du
zergatik azkenean erabaki duen
jasan behar izan duen jazarpena
salatzea: «Diputatu batek esan
du ni ikustean tentetu egiten
zaiola. Lizuna da, baldarra eta
zakarra. Patetikoa. Nire aita iza-
teko moduko adina dauka-eta!
Hori gertatzen zaizunean ez da-
kizu zer egin. Masailekoa eman,
agian? Jende guztia zuri begira
jarriko litzateke. Barre egin, bes-
tela? Argi dago ez nagoela politi-
karako egina».

Sarean argitaratu diren anali-
si batzuen arabera, gizonetako
agintari askoren jarrera hori in-
punitatearen ondorio da. Eta in-
punitateak, zigorgabetasunak,
bazter guztietan hedatu den isil-
tasunaren legearekin du zeriku-
sia. Denis Baupinen kasuan oso
garbi ikusi da hori, Decryptnew-
sonline.com blogean esplikatu
dutenez.

Emmanuelle Cosse egungo
Etxebizitza ministroa da Baupi-
nen emaztea. Bera zen Europe
Ecologie-Les Verts alderdiko bu-
rua, senarra beste alderdikideak
iraintzen ari zen garaian. Alder-
diko kontseilu federal batean
Baupinen gaia aipatu zutenean,
Cosse igo zen tribunara kontu
horri buruzko eztabaidari
amaiera emateko exijitzeko:
«Eztabaida horrekin jarraitzea
debekatu dut. Gai hau beste le-
ku batean eta beste baldintza
batzuetan konponduko dugu».

